

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Martxoaren 31 arte aurkeztu daitezke 2016ko Vianako Printzea Sariaren hautagaitzak

Edizio honetan saria Erriberrin entregatuko da

Viernes, 29 de enero de 2016

Bihar, larunbata, urtarrilak 30, irekiko da [2016ko Kulturaren Vianako Printzea Sarirako](#) hautagaitzak aurkezteko epea. Nafarroako Gobernuak antolatutako sariak dira, eta kultura munduko pertsona edo erakunde aipagarrien ibilbidea aitortzen dute urtero, eta haren barnean hartzen dira, arte plastiko, musika, literatura eta

abarretako sorkuntza-ekintza nahiz zientzian, teknikan eta ikerketan egindako lana.


Eskaerak hartzeko azken eguna martxoak 31 izango da, 2/2016 Foru Aginduak, urtarrilaren 13koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariarena, xedatzen duen moduan; agindu horrek 2016ko Kulturaren Vianako Printzea Sariaren oinarriak ezartzen ditu, [NAOn gaur](#) argitaratuak.

Gogoratuko denez, aurtengo edizioak zenbait berrikuntza ditu. Lehenik eta behin, eta helburua sarituaren obra zabaltzea dela kontuan hartuz, ez du jadanik diru-sari zuzen eta finkorik izango. Kasu bakoitzean, Kulturako Zuzendaritza Nagusia sarituarekin elkarlanean ariko da bere obra zabaltzeko proiektu batean, kalitatezko proiektu bat egiten utziko duen formatuan eta behar den dirua erabiliz; hala, bere sorkuntzaren balioa nabarmenduko da, eta haren lanaren oinarritzko alderdiak herritarrek ezagutuko dituzte.

Sariak ere ez dituzte jadanik Espainiako Erregeek banatuko, eta ekitaldia Leireko Monasterioan antolatu beharrean Erriberriko Errege Jauregian egingo da.

Hautagaitzen aurkezpena eta dokumentazioa

Testuaren arabera, hautagaitzak aurkeztu ahalko dituzte: [Nafarroako Kultura Kontseiluko kideek](#), edozein herrialdetako erakunde publikoek (gobernuak, ministerioak, udalak, unibertsitateak, ikastegiak, ikerketazentroak, enbaxadak, kontsulatuak...), hezkuntza, kultur eta gizarteko erakundeek, edozein herrialdetan legearen barnean eratutako GKEek, bai eta antolakuntzak gonbidatzen dituen pertsona famatuak ere



Sariak Erriberriko Errege Jauregian banatuko dira.

Proposamenak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko Idazkaritza Nagusira bidaliko dira (Navarrería kalea, 39-1. 31001, Iruña. Espainia) posta ziurtatuz, gutun-azalean “2016ko Kulturaren Vianako Printzea Saria” jarritz, bai eta posta elektronikoz ere (premioprincipedeviana@navarra.es; bidalketa mezulari bidez egiten bada, fax-ez jakinarazi beharko da igortze-egunean bertan (+34 848 424 629).

Hautagaitza aurkezteko baimendutako erakunde edo pertsonak, ondorengo dokumentazioa erantsiz egingo dute:

a) Erakundearen izaera juridikoa egiaztatzen duten datuak eta, hala badagokio, proposatutako pertsonena, haien izen-abizenak, helbidea, telefonoa, webgunea jarritz -izango balu-, IFZ edo antzekoa, erregistrotan duen inskripzio-zenbakia, bai eta epaimahaiak ezagutza hobea izateko egokiak iruditzen diren beste agiri batzuk ere.

b) Azalpen-memoria (1.000 hitz gehienez), eta bertan, alde batetik, pertsona edo erakundearen hautagaitza aurkeztea babesten duten merezimendu garrantzitsuak jasoko dira; bestetik, egokia iruditzen den gainerako informazioa, eta informazio horrek sari hori eskuratzeko irizten diren merezimenduak egiaztatuko ditu.

c) Hautagaitza babesteko gutunak aurkeztu ahalko dira era boluntario batean.

d) Argudiatutako merezimenduak babesten eta egiaztatzen utziko dituen beste edozein dokumentazio osagarri.

Epaimahaia, epaia eta saria ematea

Epaimahaia Nafarroako Kultura Kontseiluko kideek osatuko dute.

Aurkeztutako hautagaitzak epaimahaiak aztertuko ditu, eta hark Nafarroarekin duen lotura berezia baloratuko du, merezimenduez gain. Epaia hedabideen aurrean emandako prentsaurrekoan iragarriko da, eta saria Nafarroako Gobernuak emango du epaimahaiak egindako proposamena aztertu ondoren.

Sari-banaketa xede horretarako antolatutako ekitaldi publikoan egingo da, behar bezala iragarriko den datan.